

ORBITA-TUMOREAREN KIRURGIA EGITEKO BAIMEN INFORMATUA CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA CIRUGÍA DE TUMOR ORBITARIO.

A. IDENTIFIKAZIOA:

MEDIKU ARDURADUNAREN IZENA:
.....Data:

B. INFORMAZIOA:

Orbitak dira aurpegiaren erdialdean begi-globoak eta ondoko egiturak (muskuluak, odol-hodiak, nerbioak, etab.) dituzten bi eremuak. Beraz, askotariko tumoreak ager daitezke orbitan, eta ezinezkoa da nolakoa den jakitea erauzi (partzialki edo osorik) eta mikroskopio baten bidez aztertu arte. Tumorea zer motakoa den jakin ondoren, tratamendurik egokiena ezarriko da. Horren ondorioz daukazu markatuta zeurea:

- **EBAKITZE-BIOPSIA:** orbitatik tumorearen lagin bat ateratzea da ebakuntzaren helburua, ondoren aztertzeko. Tumorearen zati bat besterik ez da kentzen.
- **BIOPSIA ESZISIONALA:** orbitatik tumore osoa kentzea da ebakuntzaren helburua, ondoren aztertzeko.
- **EXENTERAZIOA:** Orbitaren barrunbea hartzen duten begiko edo ondoko tumore gaiztoak agertzean erabiltzen da, tumoreak bizitza arriskuan jartzeko modukoak direnean eta bestela kentzea ezinezkoa denean. Begia eta orbita barruko ehun bigun guztiak ebakuntza bidez kentzean datza.
- **TUMOREA MURRIZTEKO KIRURGIA:** tumorearen ahalik eta zatirik handiena kentzean datza, osorik kentzea ezinezkoa denean.

Medikuak jakinarazi dit prozedura honetan anestesia eman behar izaten dela, lokala (sedazioarekin) nahiz orokorra.

Sedazioari buruzko informazioa:

Farmakoak zain barnetik ematean datza sedazioa, prozedura diagnostiko, terapeutiko edo kirurgiko desatseginak jasan ahal izateko, prozedurak sor dezakeen mina edo antsietate-egoerak ekidinez.

A. IDENTIFICACIÓN:

NOMBRE DEL MEDICO RESPONSABLE:
..... Fecha:

B.- INFORMACIÓN:

Las órbitas son los dos espacios que en el tercio medio de la cara albergan a los globos oculares y todas sus estructuras anejas (músculatura, vasos sanguíneos, nervios, etc...). En la órbita por tanto pueden aparecer tumores de naturaleza muy diversa y es imposible conocerla con exactitud total hasta que ésta no es extraída, parcial o totalmente, y analizada bajo un microscopio. Una vez conocido de qué tipo concreto de tumor se trata, se procederá a la instauración del tratamiento más adecuado. Es por ello que en su caso está indicada la realización de (la marcada):

- **BIOPSIA INCISIONAL:** el objetivo de la cirugía es abordar la órbita para la obtención de una muestra suficiente del tumor para proceder a su análisis. No se pretende la extracción completa del mismo.
- **BIOPSIA ESCISIONAL:** el objetivo de la cirugía es abordar la órbita con el fin de extraer por completo la lesión tumoral para proceder a su análisis.
- **EXENTERACIÓN:** Se recurre a ella en caso de tumores del ojo o sus anejos de carácter maligno que invaden la cavidad orbitaria tornándose amenazantes para la vida y que es imposible eliminar por completo de otra manera. Consiste en la eliminación quirúrgica del ojo y de todos los tejidos blandos intraorbitarios.
- **CIRUGÍA DE REDUCCIÓN TUMORAL:** consiste en la extirpación de la mayor cantidad posible de tejido tumoral en situaciones en las que la eliminación completa del mismo no es posible.

El médico me ha advertido que el procedimiento requiere la administración de anestesia, sea local con sedación, o general.

Información sobre la sedación:

La sedación consiste en la administración endovenosa de fármacos con el objetivo de conseguir tolerar procedimientos diagnósticos, terapéuticos o quirúrgicos molestos, evitando el dolor y los estados de ansiedad que pueden generar.

Anestesiologoa arduratzen da horretaz. Aurrez baloratuko ditu arriskuak, proba motaren eta osasun-egoeraren arabera, eta bizi-konstanteak behatuko ditu prozedura abian den artean. Prozeduraren prestaketa eta behaketa beste edozer prozedura kirurgiko edo anestesikoren berbera da. Hortaz, pazienteak baraurik egon beharko du proba egin aurreko 6 orduetan, eta norbaitek lagundu beharko dio (ezin izango du gidatu sedazioaren ondoren).

C. ARRISKUAK ETA KONPLIKAZIOAK:

Badakit ebakuntza egin bitartean prozedura aldatu behar izan daitekeela, egiten diren aurkikuntzen arabera, tratamendurik egokiena eman diezadaten. Ulertzen dut espero gabeko ondorioak ager daitezkeela, teknika egokia aukeratu eta era egokian gauzatu arren, bai edozer interbentziotan ager daitezkeenak, organo eta sistema guztiei eragin ahal dietenak, bai prozedura honexeri dagozkionak, batez ere hauek:

- 2-3 aste iraun dezakeen betazaleko edo aurpegiko hematoma
- Odoljario orbitarioa
- Ikusmen bikoitza, ia beti iragankorra
- Ezohiko kasuetan, ikusmena partzialki edo osorik galtzea, betiko
- Orbain antiestetikoak edo hipertrofikoak
- Betazalaren asaldura estatiko edo dinamikoak
- Erabil litezkeen ehun edo material ez-biologikoen infekzioa edota nekrosia

Konplikazio horiek agertuz gero, baliteke tratamendu osagarria hartu edo beste ebakuntzaren bat egin behar izatea. Odoljario orbitario larrien kasuan, urgentziazko ebakuntza egin behar da.

Sedazioaren arriskuak:

Aurrekarien eta egungo osasun-egoeraren arabera dira. Anestesiologoak baloratzen ditu. Gehiegizko sedazioa, tentsio-beherakada edo arnasteko zailtasunak daude sor ditzakeen arriskuen artean. Horietakoren bat gertatzean, beharrezko neurriak hartuko ditu anestesiologoak. **Abantailak:** Antsietatea eta probak eragiten duen mina murrizten ditu. Anestesia orokorrarekin baino bizkorrago sendatzen da.

El responsable de la misma es el anestesiólogo, que valorará previamente, los riesgos en función del tipo de prueba y su estado de salud, y vigilará sus constantes vitales durante el procedimiento. Su preparación y vigilancia son las mismas que para cualquier acto quirúrgico/anestésico, por lo que deberá permanecer en ayunas 6 horas antes de la prueba y venir acompañado (tras la sedación no debe conducir).

C. RIESGOS Y COMPLICACIONES:

Soy consciente de que cabe la posibilidad que durante la cirugía haya que realizar modificaciones del procedimiento por los hallazgos intraoperatorios para proporcionarme el tratamiento más adecuado. Comprendo que a pesar de la adecuada elección de la técnica y de su correcta realización pueden presentarse efectos indeseables, tanto los comunes derivados de cualquier intervención y que pueden afectar a todos los órganos y sistemas, como otros específicos del procedimiento, principalmente:

- Hematoma palpebral/ facial que puede durar hasta 2-3 semanas
- Hemorragia orbitaria
- Visión doble, casi siempre transitoria
- Excepcionalmente, pérdida de visión parcial o total de modo irreversible
- Cicatrices inestéticas/ hipertróficas
- Alteraciones de estática/ dinámica palpebral
- Infección y/ o necrosis de tejidos o de materiales no biológicos que puedan utilizarse.

La aparición de estas complicaciones, pueden conllevar tratamientos complementarios e incluso, nuevas cirugías. En el caso de hemorragia orbitaria grave, puede ser preciso realizar cirugía de urgencia.

Riesgos de la sedación:

Dependen de sus antecedentes y estado de salud actual, que será valorado por el anestesiólogo. Entre los riesgos potenciales se encuentra la sedación excesiva, bajada de tensión o dificultad respiratoria. En esos casos, el anestesiólogo aplicará las medidas necesarias. Ventajas: Disminuye la ansiedad y el dolor de la prueba y la recuperación es más rápida que con la anestesia general.

OSPITALEAK BEHAR DIREN BITARTEKOAK IZANGO DITU PREST, GERTA DAITEZKEEN KONPLIKAZIOAK TRATATZEKO.

D.- ESAN IEZAGUZU:

Halakorik baduzu, esan behar diguzu: medikamentuekiko alergiak, koagulazioaren asaldurak, bihotz-biriketako gaixotasunak, protesiak, taupada-markagailuak, egungo medikazioa, edo beste edozein kontu; izan ere, arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna handiagoa izan daiteke haien eraginez.

E.- ARRISKU PERTSONALAK

Egoera pertsonal jakin batzuek eta gaixotasunek (diabetesa, arteria-hipertentsioa, anemia...) arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna areagotu dezakete. Medikuek eman dizu zure kasuan dauden arrisku zehatzen berri.

F. BESTELAKO AUKERAK:

Adierazitako baldintzetan, aukera bakarra kirurgia dela adierazi dit medikuek.

Datuak babesteari buruzko oinarritzko informazioa: Interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Osakidetza tratatuko dituela. HISTORIA KLINIKOAREN tratamenduaren helburua da pazientearen historia klinikoaren datuak izatea, pazientearen jarraipena egiteko eta jarduera asistentziala kudeatzeko, interes publikoaren alde edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiliz egindako misio bat betez. Baliteke datuak hauei jakinaraztea: Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, GSIN, agintari judizialak eta aseguru-entitateak. Datuak interesdunak berak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetza profesional sanitarioek eman dituzte. Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere. Datuak babesteari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, webgune honetara <https://www.osakidetza.euskadi.eus/datuenbabesa/> jo dezakezu:

EL HOSPITAL PONDRÁ A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.

D. AVÍSENOS:

Es necesario que nos advierta de posibles alergias medicamentosas, alteraciones de la coagulación, enfermedades cardiopulmonares, existencia de prótesis, marcapasos, medicaciones actuales o cualquier otra circunstancia, ya que pueden aumentar la frecuencia o la gravedad de riesgos o complicaciones.

E.- RIESGOS PERSONALIZADOS:

Algunas circunstancias personales específicas y enfermedades (diabetes, hipertensión arterial, anemia,...) pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico le ha informado acerca de los riesgos específicos en su caso.

F.-ALTERNATIVAS:

El médico me ha explicado que no existe alternativa que no sea la quirúrgica en los términos indicados.

Información básica sobre protección de datos: Se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Osakidetza – Servicio vasco de salud. La finalidad del tratamiento HISTORIAL CLINICO es la de disponer de los datos de la Historia Clínica del paciente para el seguimiento del mismo y la gestión de la actividad asistencial, conforme al cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento. Pueden realizarse comunicaciones de datos al Departamento de Salud del Gobierno Vasco, al INSS, a autoridades judiciales y entidades aseguradoras. Los datos proceden de la propia persona interesada, del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y de personal sanitario de Osakidetza. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento. Podrá ampliar información en materia de protección de datos en la siguiente dirección web: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos>.

DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN OSTEAN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU ONDOREN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN

FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.

Pazientea/ El Paciente**Pazientearen izen-abizenak**Nombre, dos apellidos
.....**Sinadura eta data**

Firma y fecha

Medikua/El/La Médico**Medikuaren izen-abizenak eta elkargokide-zk.**Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del/de la médico/a
.....**Sinadura eta data**

Firma y fecha

Ordezkarria: adingabekorik edo pazientearen ezgaitasunik egotekotan / Representante: en caso de incapacidad del paciente o menor de edad**Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NAN eta ahaidetasuna**Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del representante legal
.....**Sinadura eta data**

Firma y fecha

Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del paciente o representante legal**Adierazitako prozedurapean EZ JARTZEAREN irismena eta arriskuak ulertzen ditut. Eta halako baldintzetan atzera egiteko eskubidea egikaritzen dut.**Comprendo el alcance y los riesgos de NO SOMETERME al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento
.....**Sinadura eta data**

Firma y fecha